

– Deialdia egin duen Administrazioan Administrazio Bereziko eskalako Zerbitzu Berezien azpieskalara atxikitako lanpostuetan aritzeagatik lan egindako egun bakoitzeko 0,00843 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batu dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finkoko izaera lortzeko prozeduretan. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.3. Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza (Herri Administrazio-zioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkarteetan, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 1 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorri gero.

b.10. Gidabaimen hauetakoren bat izateagatik, gehienez 10 puntu:

- B motako txartela: 2,5 puntu.
- B+E motako txartela: 5 puntu.
- C motako txartela: 7,5 puntu.

Lanpostura sartzeko baldintza gisa ezarritakoez bestelako gidabaimenak izatea bakarrik baloratuko da, betiere deitutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia badute.

*Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarri espezifikokoak, 20/2021 legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritakoa eta administrazio orokorreko eskalako administrazioen (administrari laguntzailea) azpieskalari dagokiona.*

#### 1. Deitutako plazak.

Administrazio Orokorreko eskalako Administrazioen (Administrari Laguntzailea) azpieskalako plaza baten deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

– Plaza kopurua: 1.

**Lotutako lanpostua:** Musika Eskolako Administrazio Laguntzailea.

**Ezaugarriak:**

**Eskala:** Administrazio Orokorra.

**Azpi-eskala:** Administratia (Administrari laguntzailea).

**Sailkapen taldea:** C2.

**Izaera:** funtzionarioa.

**Eskatutako titulazioa:** Derrigorrezko bigarren hezkuntzako gradua edo baliokidea.

**Hizkuntza Eskakizuna:** 2. Nahitaezkoa, derrigortasun data iraungia.

**Destino Osagarria:** 18.

**Berariazko osagarria:** 19.129.

**Lanaldia:** % 50.

Lanpostuaren zereginak:

– Jendeari arreta ematea, bai pertsonalki bai telefonoz, bulegoetarako sarbidea zainduz, eta hala eskatzen dutenei orientazioa eta informazioa emanez.

– Matrikulazioak kudeatzea.

– Por el desempeño de puestos adscritos a la subescala Servicios Especiales de la escala de Administración Especial en la Administración convocante, 0,00843 puntos por día trabajado.

El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados en cada entidad. En todo caso, los períodos de tiempo en los que se haya prestado servicio a tiempo parcial o con jornada reducida se computarán como trabajados a jornada completa. No se podrá computar en un mismo día más de un contrato/nombramiento.

b) Titulaciones y superación de pruebas en procedimientos de acceso a la condición de funcionario de carrera o laboral fijo. Se valorarán hasta un máximo de 20 puntos los siguientes méritos:

b.3. Por la cantidad de horas de recepción de cursos formativos relacionados con el ámbito funcional de los puestos de trabajo asociados a las plazas convocadas, e impartidos u homologados por entidades oficiales (Escuelas o Institutos de Administración Pública, Administraciones Públicas, Universidades, Colegios profesionales, Mutualidades, Fundaciones, Asociaciones, Federaciones), 1 punto por cada hora de recepción, hasta un máximo de 20 puntos.

b.10. Por estar en posesión de alguno de los siguientes permisos de conducir, hasta un máximo de 10 puntos:

- Carnet de tipo B: 2,5 puntos.
- Carnet de tipo B+E: 5 puntos.
- Carnet de tipo C: 7,5 puntos.

Se valorará únicamente la posesión de permisos de conducir distintos a los establecidos como requisito de acceso y siempre que guarde relación con el ámbito funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas.

*Bases específicas de la convocatoria del proceso de la convocatoria excepcional de estabilización de empleo temporal de larga duración derivado de las disposiciones adicionales 6.ª y 8.ª de la ley 20/2021, correspondiente a la subescala administrativa (auxiliar administrativa) de la escala administración general.*

#### 1. Plazas convocadas.

Se convoca una plaza de la subescala Administrativa (Auxiliar Administrativa) de la Escala de Administración General, por el turno libre, de acuerdo con la siguiente distribución:

– Número de plazas: 1.

**Puesto de trabajo asociado:** Auxiliar Administrativa/o de la Escuela de Música.

**Características:**

**Escala:** Administración General.

**Subescala:** Administrativa (Auxiliar administrativa/o).

**Grupo de Clasificación:** C2.

**Carácter:** funcionario.

**Titulación solicitada:** Graduado en Educación Secundaria Obligatoria o equivalente.

**Perfil lingüístico:** 2. preceptivo, fecha preceptividad: vencida.

**Complemento de destino:** 18.

**Complemento específico:** 19.129.

**Jornada:** 50 %.

Funciones del puesto de trabajo:

– Atender al público, personal y telefónicamente, vigilando el acceso a las dependencias, orientando e informando a los que lo soliciten.

– Gestionar las matriculaciones.

– Korrespondentzia jasotzea (tradizionala eta elektronikoa) eta banatzea. Informazio-paneletan erabiltzaileentzat interesgarriak diren oharra sartzea. Era berean, kanpoko antzeko ku-deaketak egitea (Udala, etab.).

– Ordenagailuak eta programa informatikoak erabiltzea, Microsoft Office barne (Word, Access, Excel), eta baita lanpostura-ko aplikazio espezifikoak ere.

– Administrazio-laguntza ematea espedienteen, baimenen, lizentzien eta abarren izapideetan, bai eta epeen, argitalpenen, iragarkien, jakinarazpenen eta abarren kontrolean eta dokumentuen sarrera eta irteera-erregistroetan, gorabeheretan eta abarretan ere.

– Altak, bajak, gorabeherak eta abar eguneratzea mota guztietako zerrendetan, erregistroetan edo datu-baseetan.

– Espedienteak eta dokumentuak ordenatu, sailkatu eta arxibatzea.

– Musika Eskolari agindutako fakturazioak eta kontabilitate-lanak egitea.

– Ziurtagiriak, irizpenak eta mekanografiako, fotokopiako eta e-maileko zeregin orokorrak egitea.

– Eskolako eta eskolaz kanpoko jarduera artistikoen interpreteei arreta ematea, material, logistika eta abarren beharrak kudeatuz.

– Giltzen zaintza eta ateen irekitzea eta ixtea kontrolatzea eta zaintzea, eta behar espezifikoetarako (ikastaroak, bilerak, etab.) gelak antolatzea eta prestatzea.

– Kontzertuen eta jardueren ondorioz eskolak sortutako dokumentazioaren arxiboa planifikatzea.

– Jardueren zabalkundeko eta propagandako ohiko zereginak egitea (prentsara programak bidaltzea, programak eta kartelak egitea, etab.).

– Musika Eskolaren jabetzako materialaren urteko inbentarioa koordinatzea.

– Agintzen zaizkion enkargu eta lanak egitea, bakoitzaren eginkizunekin lotuta.

– Bere lanpostuaren kategoriaren arabera eta gaitasun eta ahalmen profesionalen baitan, egokitzen zaizkion bestelako eginkizunak egitea.

## 2. Parte hartzeko baldintzak.

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrekarekin ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

2.2. C2 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasaren zenbatekoa, honako hau da: 15 €.

2.3. Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, derrigorrezko bigarren hezkuntzako gradua edo baliokidea titulazioa eskatzen da.

## 3. Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

3.1. Deialdi honen xede den plazari lotutako lanpostuan, 2. hizkuntza-eskakizuna bete behar da. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu behar dira.

## 4. Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera.

– Recepcionar la correspondencia (tradicional y electrónica) y distribuirla. Incorporar a los paneles informativos las notas de interés para los usuarios. Igualmente realizar similares gestiones al exterior (Ayuntamiento, etc.).

– Utilizar los ordenadores y programas informáticos, incluidos Microsoft Office (Word, Access, Excel) así como aplicaciones específicas al puesto de trabajo.

– Prestar apoyo administrativo en trámite de expedientes, autorizaciones, licencias, etc., así como control de plazos, publicaciones, anuncios, notificaciones, etc., registros de Entrada y Salida de documentos, incidencias, etc.

– Actualizar altas, bajas, incidencias, etc., en todo tipo de Listados, Registros o Bases de Datos.

– Ordenar, clasificar y archivar expedientes y documentos.

– Realizar facturaciones y tareas de contabilidad encomendadas a Escuela de Música.

– Confeccionar certificaciones, dictámenes, y tareas generales de mecanografía, fotocopiado, e-mail, etc.

– Atender a los intérpretes de las actividades artísticas escolares y extraescolares, gestionando las necesidades de material, logístico, etc.

– Proceder a la apertura y cierre, control y custodia de las llaves, así como la organización y preparación de las aulas para las necesidades específicas (cursillos, reuniones, etc.).

– Planificar el archivo de la documentación generada por la escuela como consecuencia de conciertos y actuaciones.

– Realizar las tareas habituales de difusión y propaganda de actividades (envío de programas a la prensa, confección de programas y carteles, etc.).

– Coordinar el inventario anual del material propiedad de la Escuela de Música.

– Realizar los encargos y trabajos que se le encomiende, relacionados con sus respectivos cometidos.

– Cualesquiera otras funciones que le sean encomendadas, en coherencia con la categoría de su puesto de trabajo, con sus capacidades y aptitudes profesionales.

## 2. Requisitos de participación.

2.1. Quienes aspiren a las plazas deben cumplir los requisitos establecidos con carácter general en el apartado 2 de las bases generales.

2.2. El importe de la tasa por la inscripción en las convocatorias para la selección de personal de plazas del subgrupo C2 es: 15 €.

2.3. En relación a lo dispuesto en el apartado 2. h) de las bases generales, se exige la titulación de graduado en educación secundaria obligatoria o equivalente.

## 3. Requisitos específicos para la adjudicación de puestos.

3.1. En el puesto de trabajo asociado a la plaza objeto de esta convocatoria es requisito de provisión el perfil lingüístico de euskera 2. El conocimiento del euskera es requisito de los puestos con fecha de preceptividad vencida.

Los requisitos citados deberán ser acreditados de conformidad con lo establecido en la base 2 y 8 de las bases generales.

## 4. Proceso selectivo.

El sistema de selección será el de concurso y constará de dos (2) partes:

4.1.1. Primera parte, el concurso: consistirá en el examen y valoración de los méritos alegados y acreditados por las y los aspirantes en la instancia, por medio del sistema de autovaloración, y se efectuará asignando a cada uno de ellos los puntos

Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren araberaren ordenatutako instantzia-kopurua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzaila izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien % 25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia: euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzaila, 2. hizkuntza-eskakizuna duen eta nahitaezko izaera duen lotutako lanpostua lortu nahi duten hautagaien zatia. Nola-nahi ere, maila horri dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu behar. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Lezoko Udalarri erregistro horretan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin behar da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeko eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko buruzkoa).

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu behar dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

#### 5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia Gai edo Ez-Gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat. Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

#### 6. Lan-poltsa.

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

#### 7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, Administrazioaren azpieskalan emakumeen azpiordezkaritza ez dagoelako.

### I. ERANSKINA

#### MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

k) Esperientzia: gehienez 80 puntu.

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate

que le correspondan con arreglo al Baremo de méritos. Solo se valorará el número de instancias ordenadas por puntuación que se haya dispuesto en las bases generales que rigen la convocatoria.

El concurso no tendrá carácter eliminatorio, si bien será necesario obtener una puntuación mínima del 25 % del total de puntos, a los efectos de lo establecido en la base 10.2 de las bases generales.

4.1.2. Segunda parte, prueba de euskera: de carácter obligatorio y eliminatorio para las y los aspirantes que opten a las plazas con puestos de trabajo asociados, con perfil lingüístico 2, de carácter preceptivo. Consistirá en determinar y acreditar, el conocimiento del euskera al referido nivel.

Cuando figure acreditado en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera, no habrá que acreditarlo, para lo cual la persona participante autorizará expresamente al Ayuntamiento de Lezo a su comprobación en el citado registro.

No obstante, sí deberá aportarse cualquier otro título o certificado de euskera no incluido en dicho registro, pero sí convalidado de acuerdo al Decreto 297/2010 de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de euskera, y su equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.

Quienes pretendan acreditar el perfil lingüístico 2 al amparo de lo dispuesto en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, deberán aportar la certificación académica correspondiente. A estos efectos, únicamente se reconocerán aquellas exenciones que se hayan validado en el RUTCE-Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera.

#### 5. Calificación del proceso selectivo.

5.1. La calificación del concurso vendrá determinada por la suma de los puntos atribuidos con arreglo al Baremo de méritos que se incluye como anexo I.

5.2. La segunda parte se calificará de Apto o no Apto para aquellas personas que opten a las plazas que llevan aparejado perfil lingüístico preceptivo. Cuando no fuera exigible el cumplimiento de perfil lingüístico alguno, el conocimiento del euskera será considerado como mérito.

5.3. La calificación final de las y los aspirantes vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en el total del proceso selectivo.

#### 6. Bolsa de empleo.

Del presente proceso selectivo no se creará bolsa de empleo.

#### 7. Aplicación de la cláusula de prioridad.

A los efectos de la aplicación del artículo 27.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, no se aplicará la cláusula de desempate prevista en el citado artículo al no existir subrepresentación de las mujeres en la subescala Administrativa.

### ANEXO I

#### BAREMOS DE MÉRITOS

De conformidad con lo dispuesto en las disposiciones adicionales sexta y octava de la ley 20/2021 de 28 de diciembre:

k) Experiencia: hasta un máximo de 80 puntos.

a.1. Experiencia general:

Se entiende por experiencia general, la experiencia por los servicios prestados en cualquier Administración pública, incluida la Administración convocante, en puestos adscritos a los cuerpos,

edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanikin ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

– Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Oroko erreko eskalako Administrazioen azpieskalan lan egindako egun bakoitzeko 0,01096 puntu.

a.2. Esperientzia espezifikoak:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, berezita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

– Deialdia egin duen Administrazioan Administrazio Oroko erreko eskalako Administrazioen azpieskalara atxikitako lanpostuetan aritzeagatik lan egindako egun bakoitzeko 0,00366 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finkoko izaera lortzeko prozeduretan. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.7. Informatikako ezagutzak.

Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 20 puntu gehienez, eta 5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Oinarritzko Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarritzkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemen bidez egiaztatuko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio ezberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarritzko maila egiaztatutzat joko dira.

*Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarri espezifikoak, 20/2021 legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritakoa eta administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoari dagokiona.*

1. Deitutako plazak.

Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoko plaza baten deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

escalas, subescalas, opciones, especialidades o grupos profesionales asimilados a los anteriores que sean objeto del respectivo proceso selectivo, con independencia del carácter, funcional o laboral, de la relación de la que traiga causa.

Se valorará hasta un máximo de 60 puntos, de acuerdo al siguiente baremo:

– Por servicios prestados en la subescala Administrativa de la escala de Administración General, en cualquier Administración pública, incluida la Administración convocante, 0,01096 puntos por día trabajado.

a.2. Experiencia específica:

Se valorarán, hasta un máximo de 20 puntos, de manera específica, diferenciada y complementaria a la valoración de la experiencia general, los servicios prestados en la Administración convocante por el desempeño de puestos convocados en el respectivo proceso selectivo, de acuerdo al siguiente baremo:

– Por servicios prestados en la subescala Administrativa de la escala de Administración General, en la Administración convocante, 0,00366 puntos por día trabajado.

El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados en cada entidad. En todo caso, los períodos de tiempo en los que se haya prestado servicio a tiempo parcial o con jornada reducida se computarán como trabajados a jornada completa. No se podrá computar en un mismo día más de un contrato/nombramiento.

b) Titulaciones y superación de pruebas en procedimientos de acceso a la condición de funcionario de carrera o laboral fijo. Se valorarán hasta un máximo de 20 puntos los siguientes méritos:

b.7. Conocimientos de informática.

Se valorarán los conocimientos informáticos, hasta un máximo de 20 puntos, a razón de 5 puntos por cada una de las siguientes certificaciones:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 básico.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 básico.
- Internet Básico.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 básico.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 nivel único.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 avanzado.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 avanzado.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 avanzado.
- Internet Avanzado.

La superación de los módulos se acreditará mediante el sistema de certificación IT Txartela, según se ha indicado en las bases generales. En el caso de que se acrediten diferentes versiones de un mismo módulo, solo se valorará uno de ellos.

A efectos de esta convocatoria, a quienes acrediten el nivel avanzado se les considerará, asimismo, acreditado el nivel básico.

*Bases específicas de la convocatoria del proceso de la convocatoria excepcional de estabilización de empleo temporal de larga duración derivado de las disposiciones adicionales 6.ª y 8.ª de la ley 20/2021, correspondiente a la subescala técnica de la escala administración especial.*

1. Plazas convocadas.

Se convoca una plaza de la subescala técnica de la Escala de Administración Especial, por el turno libre, de acuerdo con la siguiente distribución: